

“KOSMODISEAK BERRITZEKO AUKERA ESKAINTZEN DIGU”



Miguel Ángel Ugartemendia | AEG (<http://www.aeg.es>)

ZIKLOAK

Miguel Ángel Ugartemendia Kosmodisea 2009-2010 edizioko "Zikloak" kategorian Fono planetan lehen postua lortu duen Donostiako AEG zentroko "A.C.US" taldearen arduraduna da.

Ugartemendiak dioenez, Fono Planetako lehen postua lortu zutela jakitean taldeak sentitu zuen asebetetzea sustapen-motor bikaina bihurtu da are lehiakorragoak bihurtu eta Ikono Planetan lan ona egiteko motibatzerakoan. *"Ikasleek bazekiten proiektu ona egin zutela, sormen, talde-lan, garapen eta baita umore maila altukoa zela. Gainerako talde parte-hartzaileen lanen kalitate ona entzutean, kontua oso parekatua egongo zela konturatu ziren. Orokorrean maila hain altua izanik, lehen postua lortzea oso zaila iruditzen zitzaigun baina gure taldea, gure lana, han goran ikustea, berealdiko poztasuna izan da".*

Soinu-lana egiterakoan zer iruditu zitzaizuen egiten zailena?

- Taldeak, hasieratik, desberdintze-elementu gisa, eleaniztasuna erabiltzea erabaki zuen eta, hala, lanaren zati handi bat ingelesez egin da. Nazioarteko Merkataritzako prestakuntza-zikloko ikasleak izanik, eta parte-hartzaileek izan duten esperientzia

kontutan hartuta ama-hizkuntza ingelesa duten herrialdeetan egonaldiak egin baitituzte, zailtasuna ez da izan hizkuntza hori erabiltzea, gainerako taldeek zein harrera egingo zioten jakitea baizik. Emaizak egiaztatu egin du, pertsona parte-hartzaileek egindako lana baloratu dute edozein hizkuntzatan eginda ere, edukiari eta komunikatutako mezuari, eleaniztasunaren funtsezko elementuei lehentasuna emanez.

2009-2010 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

- Azpimarragarriena lanerako metodoa da, ideia sortzaileak errealitate bihurtzeko aukera eskaintzen baitu. "Berritzeko" aukera eskaintzen duen sistema da. Taldea funtzionamendu-arauak ezarriz antolatzea, helburuak argi edukiz eta zereginak banatuz, parte-hartzea, komunikazioa, erabakiak hartzea eta gatazkak konpontzea landuz, emaitza gisa lortzen diren produktuetan pertsona parte hartzaileek lan-ereduak bizitzeaz gain, lortutakoaren harrotasuna sentitzen dute.

Eta zeintzuk dira parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

- Lehenik, zaila izan zen ideia irabazleak taldeak adierazitako erduekin bat ez etortzea onartzea. Lana egiteko ideia irabazleetako bat onartu eta aukeratu ostean, guztia arinagoa izan da. Lan-mota horiek azterketekin bateragarri egitea ere zaila izan da, baina taldean sortutako gogoak parte-hartzaile bakoitzak bere zereginak betetzeko denbora ateratzea bultzatu du.